



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-07-24**

VIURTEA 1.494.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

TAKeko neskek hirugarren egin dute Gipuzkoako Traineruen Txapelketan

TOLOSALDEA Atzo aurkeztu zuten Tolosaldeko Arraun Klubekoek nesken lehendabiziko trainerua

SAILKAPENA Nesken mailako lehen txapelketan Zumaia-Getariakoek irabazi zuten; bigarren Hondarribia izan zen 6-7



Villabonan bizi den Helga Massetani artista argentinarren erakusketa abuztuaren 8ra arte izango da ikusgai Sacem eraikinean. I.GARCIA

Massetaniren collageak Sacem eraikinean

VILLABONA Bihar inauguratuko dute artista argentinarren erakusketa, Beatriz Churrucaren instalazioarekin batera 4



TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban Auzoa, 14-A

20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel: 943-850337 Fax: 943-852938

e-mail: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Bipper Berria





Ezker-eskuin: Pablo (Madril), Marc (Bartzelona), Anjel (Madril), Diana (Bartzelona) eta Toni (Mallorka). Euskaraz bizitzeko moldatzen (ari) dira gutxinaka beste lagun batzuekin batera. N.U.

KALEAN ENTZUTEZ IKASI

Aduna » 16 lagunek barnetegian astebete egingo dute: Kataluniatik, Mallorkatik, Madridik... etorri dira oraingoan, zazpi egunez euskaraz bizitzeko.

NEREA URBIZU

Adunako barnetegiko tabernako barrara joan eta hautsontzia nola eskatu ez jakin. «Hautsontzia», esan dio tabernariak. «Nola esan duzu?», «bai, hautsontzia, zenizeroa». Euskara ikasten ari den katalanetako bat zen eskatzen ari zena, bazkalostean kafea hartzeko garaian.

Ez da euskarazko hitzik errazena, ezta naturalena ere agian, baina hala ikasten omen da, praktikatzen. Ziurrenik emakume horri ez zaio ahaztuko: ahazten bazaio, zenizero esateko hitz oso zaila erabili behar dela gogoratuko du, seguru.

Aste honetan zehar, igandera arte 16 euskara ikasle taldea dago Adunan. Maila desberdina

dute denek, batzuk barnetegian lehendik egon izan direlako, eta beste batzuentzat, berriz, guztiz berria da barnetegiko esperientzia.

Anjel eta Pablo madrildarrak dira eta dagoeneko hirugarren urtea dute Euskal Herrira datozela, euskara ikastera. Ojartzunen eta Arantzan egon ziren lehenengo eta orain Adunan. Zergatia galdetzean, hau izan da Anjelen erantzuna: «Familia euskalduna daukat, Donostia aldekoa eta gainera euskara gustatzen zait. Euskararekiko sentimendua daukat». Pablo-

ren arbasoak euskaldunak ziren, bizkaitarrak. «Betidanik izan dut gogoa ikasteko». Adunan ere, «ondo» daude, «jende jatorria dago eta arratsaldeetan kaleetan zehar ibiltzen gara, herriak bisitatzeko eta jendearekin hitz egiten saiatzen gara». Berriz ia bueltatuko diren galdetzean, Pablok, noizbait etxean entzun duen esaldi bat botatu zuen: «Jainkoak gura badu, bai».

Egun arrunt bat barnetegian

Pablok eta Anjelek egunean zehar egiten dutena kontatu dute: «Goizean lau orduz euskarako klaseak

jasotzen ditugu udaletxean. Nahiko dibertigarriak dira. Astelehenean Tolosara joan ginen, asteartean Zerainera... Arratsaldetan herriak eta lekuak bisitatzeko ditugu».

Beraz, «euskaraz hitz egiten dugu, ikasten dugu, entzuten dugu, turismoa ere egiten dugu, eta denok batera».

Gutxinaka, barnetegira lehen aldiz etortzen diren batzuk hurbildu dira Pablo eta Anjelengana. Lagun hauek erakusten duten gogoa eta euskaraz praktikatzeko gogoa bistan geratzen da: «Ni Toni naiz, Mallorkakoa naiz, eta nire familia



hitza

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat




Harpidedunentzat
%25
merkeago




Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.

elastikoarekin
poltsa opari!





euskalduna zen, Errenteriakoak». Gaur egun, bere familiakoek «%100 mallorkatarrez hitz egiten dute, edo dugu».

Euskara «oso zaila» dela esan du, baina «aldi berean oso interesgarria, eta barnetegira etorrita errazagoa da. Eguerdian burua informazioz beteta daukat».

Liburuetan ez dagoen euskara
«Aditzak, hiztegia eta esaldien egitura da zailena». Hori erantzun dute denen artean. Marc-ek (Bartzelona) lehenengo urtea du ere barnetegian eta kalera ateratzen

Gustukoaren dutena jaiak, mendien koloreak, Ernio, janaria, euskal kultura eta bertako jendea da

direnean du ia gustukoaren, «4-5 urteko umeekin hitz egin dugu eta oso irekiak dira: izena, telebistako programa gustukoena, nongoak garen galdetu digute». Esperientzia bezala «oso ona da. Liburuetan ez dagoena hemen dago, kalean, hau da euskara erreala».

Euskal Herrian gustukoaren dutena momentuz behintzat, jaiak, mendien koloreak, inguruan bereziki Ernio, janaria («gehiegi jaten dugu»), euskal kultura eta bertako jendea da. «Hemen gehiegi zaintzen gaituzte. Kataluniara kilo gehiagorekin itzuliko gara!».

«Lehengusinari ulertzeko»

Handik gutxi (ez dakigu berekabez edo irakasleren batek erdi behartuta), taldeko gazteenetako hurbildu da; Diana, Bartzelonakoa. Euskaraz hastearena egiten omen zaie gogorra, eta hori hasieran nabaritu da, baina ongi moldatu da: «Euskara irailan hasi nintzen ikasten, Euskal Etxean. Beti gustatu izan zait euskara, eta lehengusinarik hitz egiten zuenean ez nion ulertzen».

Dianak «ondo» dagoela dio, eta «berriz etortzea posible» dela. Gehien gustatzen zaiona hemengo kultura, mendiak, jendea eta festa dira. «Asko jaten dugu».

Bestela, urtean zehar haien lurraldeetan dute euskara ikasteko aukera, Euskal Etxean. Batzuk ETB Satere ikusten dute eta lagunak ere erosten dute euskaraz irakurtzeko. Gutxiak, baina batzuk etxean ere hitz egiteko aukera ere badute.

«Ikasle hauek euskaraz hitz egiten hasteko bultzada hori behar dute»

ANE BASTIDA ETA EKAITZ GARATE Adunako barnetegiko euskara irakasleak

Aduna » Bi gipuzkoar hauei egokitu zaie lanean Adunan elkarrekin aritzea. Aste honetan 16 laguneko taldearekin ari dira.

N. URBIZU

Ane Bastida (Deba, 1977) eta Ekaitz Garate (Ordizia, 1977) Adunako euskarako irakasleak dira. 16 ikasle dituzte aste honetan, Madrildik, Bartzelonatik eta Mallorkatik etorritakoak, besteak beste.

Zer da gehien kostatzen zaiena lehen urtean daudenei?

Ekaitz Garate. Lehengo, lotsa kentzea, atrebentzia puntu hori hartzea. Bildurrarekin datoz, minimoak ikasten dituzte, erosketak egitera joateko orduan badakite eskatzen, tabernan ere bai, baina besteak zer esango dionaren beldur dira. «Gai izango ote naiz ulertzeko edo erantzuteko?»... Bultzada hori behar dute, konfidantza.

Ane Bastida. Urte bat baino gehiago daramatenek konfidantza gehiago dute euren buruarengan.

Zer da haien aldetik positiboa?

E. G. Motibazioa. Berandu hasi dira ikasten, helduak direnean. Motibaziorik gabe ez lirake hasi ikasten. Aurten 67 urteko emakume bat dugu gure artean, pentsa zer motibazio izan dezakeen...

A. B. Guk euskara txikitan ikasi dugu, eta hauek orain hasi dira, helduak izanik. Oso motibatuta datoz ikastera. Gazteenak 19 urte eta helduenak 67 dauzka: adin guztietakoak dauzkagu, bitarte horretakoak dira denak beti. Oso ondo moldatzen dira beraien artean gainera. Denek maila beretsuko euskara daukate, eta nolabait esatean, egoera berdinean daude.

Zein asmorekin datoz barnetegira?

A. B. Euskara eta Euskal Herria hurbiletik ezagutzera datoz. Hemen aste oso batez euskara hutsean aritzen dira. Klaseetan jasotako praktikan jartzera datoz, errefoztua praktikan jartzera. Euskal Herriarekin kontakto zuzena dute



N. U.

ere, arratsaldeetan txangoak egiten baititugu.

E. G. Ingurua eta bertako jendea ezagutzeko aukera dute. Euskaraz bizi daitezke hemen, horrela ikusten dute euskaraz bizi daitezkeela. Modu atseginean egiten dute gainera, txangoen bidez, bisitak eginez eta bertako jendea ezagutuz.

Euskararekiko eta Euskal Herriarekiko aurreiritziak al datoz?

A. B. Batzuk bai. Entzuten dutena eta ikusten dutena zer denaren arabera izaten da ere. Baina honeira edo euskal etxeetara jotzen duten momentuan, ikuspegi zabalak dutela ere ikusten da. Interesa eta jakinmina dutela erakusten da horrela.

E. G. Egia esan, batzuk bai, baina Euskal Herriarekiko mitifikazio hori kentzen zaie hona etorrita. Ideia horrekin datoz: denak pilotariak, harri-jasotzaileak, txuleta-

janzaleak, eta abar garena edo. Euskal Etxean ere euskaldunak idealizatu egiten gaituzte gure ustez. Anek esan duen bezala, Euskal Etxeetara jotzen duen horrek, zer edo zer gehiago badela ikusten du. Nolabait esatean, ikuspuntu zabalak dauka.

Anekdotarik edo, izango da...

E. G. Tolosan larruzko pilota bat erosi zuten (13-15 urte bitartekoena zen). Astelehenean arratsaldean pilotan jolasten aritu ziren, eta gure kontra partida galdu egin zuten. Batek eskumuturra hurrengo egunean izorratuta zeukan, eta beste batek, berriz, eskuan ubeldura handi bat zuen, eskua dena minberatuta. Beraiek zioten: «Gu ez gara euskaldunak... Nola demonstretaraz dezakete pilota 7. zenbakiraino?» Zer esanik ez: hurrengo egunean eskuak eta gorputza ere minduta zituzten denek...

Ohiko bilkura datorren asteartean egingo dute udaletxean

Amezketak » Ur kontsortzioko hitzarmenaren eta arau berriztatzaileetako aldaketa txikiak egingo dituzte.

ERREDAKZIOA

Datorren asteartean, hilaren 29, hain zuzen, 20:30ean Amezketako Udaletxeko pleno aretoan ohiko bilkura irekia egingo dute. Bertan, besteak beste, Larraitx-bidearen ondoko eremuko urbanizaketa proiektuaren haserako onarpena izango da.

Arau berriztatzaileen aldaketa txikiak ere jorratuko dituzte, lanen adjudikazioa eta dirulaguntza eskaera ere eginez. Aste honetan egin diren batzordeetako bilereetan jorratu dituzten gaiak ere landuko dituzte. Beraz, ohiko bilkuran 2008ko festetarako (Amezketak eta Ugarte) eta Kultur Asterako diru laguntzen onarpena kontuan hartuko dute.

Beste hainbat onarpen

Herriaren intereseko beste lau onarpen ere izango dituzte mahain gainean: EVE-Amezketako Udalaren artekoa, eguzki panela, hain zuzen. Eguzki panelak jartzeko udal instalakuntzak erabiltzeko zesio-lagatzeko hitzarmena onartzea.

Tolosalde Garatzeneko bazkide izateko estatutoak eta kapital ekarpenaren zenbatekoa onartzea ere kontuan izango dute. Gipuzkoako Ur Kontsortziorekin sinatu behar den hitzarmena ere onartuko dute ziurrekin.

» ZUZENKETA

Hil honen 18ko alean *Gipuzkoaz lehen aldiz* izeneko artikuloan, *Altzoazpiko Salvatore eliza zahar*ean *Gipuzkoako aipamen zahar*ren aurkitu zituzten (1025. urtea) azpitularra dator. Baina ez da zuzena: dokumentu hau Huescako San Juan de la Peña monastegian (Espainia) aurkitzen den *Libro Gotico* liburuan dago, eta ez Altzon.

Janari Denda
Pepi
Berria, 56 BILLABONA
Tel. 943 69 16 38
Jai zoriotsuak pasa!
Etxeko Barazki eta Fruituak

OGI-GOXO
Okindegi eta Gozotegia
Kale Nagusia, 26
Tel.: 943 69 32 94
Billabona
Jai zoriotsuak pasa!

berria bekak 2008
Norentzat:
• Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
• Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **8 beka**, horietako bat bideo informatiboak lantzeko
Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**

Ezaugarriak:
• 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
• Astean lau eguneko jarduna
• 6.255 euroko diru laguntza
• BERRIAk Andoainean duen egoitza nagusian edo ordezkarietazan

Ezaugarriak:
• 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
• Astean lau eguneko jarduna
• 8.340 euroko diru laguntza
• BERRIAk Andoainean duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2008-09-08
Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragai

Transernio Pilota Txapelketaren final-laurdenak gaur eta etzi

Aduna » Gaurkoan 18:00etan hasiko dira partidak eta etzi 10:00etan; finala abuztuaren 9an izango da, festen baitan.

ERREDAKZIOA

Adunako pilota eskolako gurusoek antolatzen duten Transernio Pilota Txapelketa azken txanpara iristen ari da. Gaur eta etzi final-laurdenak izango dira jokoan Adunako frontoian. Gaurkoan 18:00etan hasiko dira partidak. Alebinetan Aduna-Hernani izango da partida eta infantiletan, Amezketak-Usturibil eta Bidegoian-Hernani. Kadete mailan, Alkiza eta Amezketak neur-tuko dira.

Etzi partidak 10:00etan hasiko dira. Alebin mailan, Aduna eta Andoain lehiatuko dira eta kadeteetan Alkiza eta Usturibil. Finalerdiak abuztuaren 1ean eta 3an izango dira. Ohi bezala, Transernio Pilota Txapelketaren finala Adunako festen baitan izango da. Abuztuaren 9an izango da hori eta 18:00etan hasiko dira partidak.

Azken neurketen emaitzak

Aurreko asteburuan hainbat partida jokatu zituzten pilotariak. Benjamin mailan, partida bat jokatu zuten eta bertan Amezketak 16-Añorga 6 izan zen emaitza. Alebinetan, bi partida jokatu ziren. Ziturkil 16- Ordizia 6 eta Villabona 16- Amezketak 11.

Infantil mailan ere bi partida jokatu ziren. Andoain 18-Alkiza I 12 eta Aduna 18-Alkiza II 5 izan ziren emaitzak. Azkenik, kadete mailan guztira hiru partida jokatu ziren. Ordizia 22-6 irabazi zion Añorgari. Amezketak 22-12 gailendu zitzaion Azpeitziari. Eta hirugarren partidatan, Alkizak 22-9 irabazi zion Alegiari.



Helga Massetani, berak egindako collage lanak eta Churrucaren instalazioaren zati bat aurrean duela. I. GARCIA

Massetaniren collageak eta Churrucaren instalazioa ikusgai Sacem eraikinean

Villabona » Bihar, 20:00etan, egingo dute inaugurazioa eta erakusketa zabalik izango da abuztuaren 8ra arte.

IMANOL GARCIA

Villabonan bizi den Helga Massetani artista argentinarra eta Beatriz Churrucaren arteak erakusketa jarri dute Villabonako Sacem eraikinean. Bihar izango da inaugurazioa, 20:00etan, eta hortik aurrera, abuztuaren 8ra arte irekita egongo da 17:00etatik 20:00etara. *Artacion!*-en bigarren edizioa izango da erakusketa hau eta HUM (*Zuk Zeuk Egin*) bezala ere izendatu dute. Izan ere, erakusketan mahai bat egongo da eta bertan egongo diren materialekin bisitariak bere collagea egiteko aukera izango du.

Helga Massetani collageak jarri ditu ikusgai eta Beatriz Churrucaren *Soma* izeneko instalazioa. Erakusketa definitzeko hainbat hitz erabili ditu Helga Massetani: kontsumoa, berziklapena, artea, gizartea, interakzioa, sormena, loturak... Erakusketako bi obrak zakarrontzira botatzen diren elementuekin eginda daude. Bai collageak eta bai instalazioa material berziklatuarekin eginda daude. Collageetan mota askotako materialak erabiltzen dira eta instalazioko formak jendeak botatako arropekin beteta daude.

Bi motatako collageak

Massetani bi motatako collageak jarri ditu ikusgai. Alde batetik, konposizio plastikoak daude, hau da, artistari barrutik sortzen zitzaion modura egindakoak. «Margotzen dudanean ere berdina egiten dut.

ERAKUSKETAREN HARRIRA, TAILER IREKIA ABUZTUAREN 1EAN

Artitadeto taldeak (bertan parte hartzen du Helga Massetani) tailer irekia antolatu du erakusketarekin bat eginez. Abuztuaren 1ean izango da eta dohainik izango da. Dagoeneko izena eman du jendeak eta parte-hartzaileen kopurua mugatua izango dela azaldu dute antolatzaileek. Hilaren 28a baino lehen konfirmatu behar da parte-hartzea artitadeto@gmail.com helbidean.

Tailerra Sacem eraikinean bertan egingo dute. 19:00etan hasiko da eta guztira bi ordu inguru iraungo du. Hiru zatitan egongo da banatuta. Alde batetik, Antonio Berni artista latinoamerikarrari buruzko hitzaldira egingo dute. Berni pintura eta collagea erabili zuten gai sozialei inguruko obrak egiteko. Bigarren zatian Artitadeto taldeko artistek demostrazio batzuk egingo dituzte. Ondoren, tailerrean parte-hartzen dutenek beraien collageak egingo dituzte. Azkenik, nahi izanez gero, egindako obrak Sacem bertan jarri ahaliko dituzte.

Koloreak nahasten joaten naiz eta horren arabera sortzen ditut koadroak. Collagea egiterakoan ere teknika edo estilo berdina jarri dut martxan».

Koadro edo collage abstraktu bat egitea musika konposatzearekin batzen du Massetani. «Zurea ez den beste hizkuntza batean abesti bat entzutean, ez dituzu hitzak ulertzen, baina melodia, abeslariaren ahotsa eta beste hainbat elementu gustatzen zaizkizu. Arte abstraktua ikusterakoan ere berdina da: agian ez duzu ulertzen artista bera bere horretan gustatzen zaizkizu».

Bestalde, artista argentinarra mezua bat duen collageak osatu ditu. Zerbait esateko egin ditu eta gehienetan esaldi bat edo hitz batzuk azaltzen dira mezua zehazteko. «Immigrazioa, Lehen Mundua eta Hirugarren Mundua, gizartea... hainbat kezka ditut buruan eta horiek islatu ditut collageetan», azaltzen du. Bi estiloetako collageak nahastuta daude hormetan.

Jolasa, artea eta ingurumen kekak elkartzuta

Aspaldiko Soma kuboan oinarriturik, Churrucaren lanaren asmoa jolasa, artea eta ingurumen kekak elkartzea da. Artistak azaltzen duenez, «pieza, anabasa, mailaguzko oroipenaren erakusleho, bilgarri berritako zaharrik hauek elkarretaratzetik sortzeko gaitasuna balute, dena bat etorriko litzateke. Egizue aproba».

Arropaz beteriko forma ezberdinez osatuta dago lana. Beraien artean elkartzu gero kubo bat egin daiteke. Plastikoa garrenen baruan ikusten diren arropen kolore ederki josten dute hormetan jarrita dauden collageekin.

ARANBURU ardotegia

ARDOAK • SAGARDOA • KONTSERBAK • LIKOREAK, etab.

Etixerainoko Zerbitzua

Jai zoriontsuak
opa dizkizuet!

Santio kalea, 4 • VILLABONA • Tel.: 943 69 13 24

JANARIDENDA

PILAR Santioak ondo pasa!
Larrea, 9 • Villabona
Tel.: 675 713637

EIZMENDI ARMATEGIA
KIROLDENDA



Kirol gaiak konpontzeko lantegia
Aukera handia eskopeta eta kartutxotan

ONDO
PASA
JAIETAN!

Berria, 19 • Billabona
Tel.: 943692623 • Faxa: 943693044



Abuztuaren 2an errepideetan ekimenak egingo dira preso eta iheslariaren eskubideen alde Etxerategi deituta. N. URBIZU

Azken ostiralean eta hondartzetan ekimenak egingo ditu Etxerategi

Politika » Azken ostiraleko elkarretaratzeekin batera, igande honetan hondartzetan ekimenak egingo dituzte.

ASIER IMAZ

Euskal Errepresaliatu Politikoen Senitartekoek hilabeteko azken ostiralerako, biharko, elkarretaratzeetara deitu dute, Tolosaldeko eta Leitzaldeko ohiko lekuetan.

Horretaz gain, Etxerategi uztailearen amaieran eta abuztuaren hasieran egingo dituzten ekimenean parte hartzeko deia egin dute: «Herriarren babesa, konpromisoa eta presioa behar ditugu euskal preso, iheslari nahiz senideek jasaten duten krudelkeriaren aurrian».

Hondartzetan, Azpeitian eta errepideetan ekimenak

Tolosaldeko herritarrek Kontxa-ko hondartzara deitu ditu Etxerategi, igande honetan 12:00etan ordularian. Abuztuaren 2an berriz, salaketa errepidera eramango dute. Errepide ertzean egoteko autoan eramaten diren txalekoak beharrezkoak direla gogoratu dute.

«Nahikoa da!»

Etxerategi «nahikoa» dela esan die estatu espainiar eta frantzesari eta «euskal preso politikoen eta euren senideen eskubideen aurkako az-

ken erasoak, Iñaki De Juanaren sendiaren aurkako erasoak» gogor salatu zituen. Herritar guztiak «presioa egiteko konpromisoa» eskatu zuten eta aipatu ekimenean parte hartzeko deia egin zuten.

» AZKEN OSTIRALA

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30ean.
- Amezketak. 19:30ean.
- Anoeta. 19:30ean.
- Asteasu. 20:30ean.
- Ibarra. 19:30ean.
- Ikaztegieta. 20:30ean.
- Leaburu (gaur). 20:00etan.
- Leitza. 20:00etan.
- Lizartza. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30ean.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.




Bartoloen edo Aldarrikapen Ekitaldien aurkezpena atzo Ibarra plaza. A.I.

Ibarra Aldarrikapen Ekitaldiak aurkeztu dituzte jaiei begira

A. IMAZ

Bartoloak edo Aldarrikapen Ekitaldiak aurkeztu zituzten atzo Ibarra. Lehenik batzar informatibo irekia egin zuten eta bertan antolatuak Aldarrikapen Jaiei nondik norakoak azaldu zituzten: «Udal baztertzaila honen jarrera salatuzko jaietan aldarrikapen ekitaldiak antolatu ditugu. Lan horretan herritar eta elkarte ezberdinak aritu gara; pentsaera ezberdinetako izan arren, denok argi genuen zer bait egin beharra zegoela. Ez da normala Udalaren jarrera, eta jaietan normaltasun eza salatu beharra dagoela uste dugu. Herriarren hitza ez dute errespetatzen eta nahi dutena egiten dute inoren iritzirik kontutan hartu gabe».

Bartoloak abuztuaren 21ean hasiko dira eta 26ean amaitu. Aldarrikapen Ekitaldian parte hartzeko deia egin die herritarrei.




«9 atxilotuak askatzearen alde»

IBARRA » Aste honetan Guardia Zibilak 9 euskal herritar atxilotu izana salatu zuten hainbat lagunek herenegun Ibarra. Protesta modura Euskal Herria kalea zeharkatzen duen errepidea moztu zuten plazarako sarrean, *Errepresiorik Ez Atxilotuak Askatu!* jartzen zuten pankarta batekin. «Mobilizazio berriei adi egoteko» eskatu zuten. A. IMAZ



opor hauetan atera argazkiak!

Sari nagusia



2. saria

3. saria

Beti Alai jateko



Ibarra Azoka dendak eskainitako saski berezia.

Amorotoko Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia.



Tolosa Beti Alai jateko, bi pertsonentzako bazkari edo afaria.

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- Postaz: Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte hartzaile eta boto emaileen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!

KONTXAKO URETAN



Tolosako udaletxearen aurrealdean egin zuten atzo goizean aurkezpen ekitaldia; bertan izan ziren arraunlariak, TAKeko ordezkariak eta Udalekoak. INIGO TERRADILLOS

Arrauna » Atzo aurkeztu zuen TAKek nesken lehendabiziko trainerua; Kontxako uretan, Gipuzkoako Txapelketan hirugarren geratu ziren.

I. TERRADILLOS-E. EZEIZA

Atzo, egun berezia izan zen Tolosaldeko Arraun Klubekoentzat. Izan ere, eguerdian aurkeztu zuten nesken lehendabiziko trainerua eta arratsalde horretan bertan jokatu zuten lehen estropada.

Gipuzkoako Nesken Mailako Traineruen Txapelketa jokatu zen Donostiako Kontxako uretan. 2.800 metroko distantzia burutu behar izan zuten arraunlariak, bi zuzen eta ziboga bat eginez, eta aurrez aurre izan ziren Hondarribia, Zumaia-Getaria eta Tolosaldeko taldeak. Eskualdekoei dagokionez, hirugarren geratu ziren, 12 minutu eta 37 segundoko denborarekin. Lehen postuan Zumaia-

Getariako neskek geratu ziren 12 minutu eta 3 segundoko denborarekin, eta oso gertu, 2 segundora geratu ziren bigarren egin zuten hondarribiarrak. TAKeko ordezkariak azaldu bezala, «joanekoan oso ondo aritu ziren tolosaldekoak, Hondarribiako pare, baina itzuleran, pixka bat konplikatu zitzaizkien egitekoa».

Lehendabiziko aldia izan da aurtengoa, Emakumezkoen Gipuzkoako Traineruen Txapelketa egiten dena, Gipuzkoako Arraun Federazioak, Josetxo Etxeberriaren zuzendaritzapean antolatuta.

Traineruaren aurkezpenerako, eguerdian elkartu ziren arraunlariak eta klubeko ordezkariak Tolo-

sako udaletxearen aurrealdean. Ordurako nabariak ziren dagoeneko arratsaldeko txapelketak sortutako nerbioak. Aurkezpen ekitaldiaren ostean, denak batera joan ziren bazkaltzera, eta laurak alderako Kontxako uretan murgildu ziren.

Urte asko lanean

Urte asko daramatzate TAKekoek, neskek kirolean sartzeko ahalgintetan, eta hau helburu hori lortzeko bidean, beste pauso bat dela esan daiteke. Denera 18 neskek osatzen dute Tolosaldeko trainerua, gehienak eskualdeko hiriburukoak badira ere, beste hainbat inguruetakoak dira. Denek ere ongi ezagutzen dute arraunaren mundua.

Bestalde, lehendabiziko aldiz, Zaragozako Expo 2008a aitzakiatzat hartuz, ACTk (traineruen klubien elkartera) estropadak antolatu



Trainerua denen artean hartu eta buelta eman zioten, jendeari erakusteko. I.T.

H Hilberria

PANTXIKA GARMENDIA ARSUAGA

Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela orainak ere geroan.

Berrobiko Garmendia Olanoko Berakoetxea Garmendia eta Odriozabala Garmendia familiak



UGARTEN 2008ko uztailearen 24ean

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

» TOLOSALDEKO TRAINERUKO ARRAUNLARIAK



Izaro Zubiria
PATROIA
■ **Adina.** 18 urte.
■ **Herria.** Gaztelu.
■ **Denboraldiak.** 2005ean hasi zen petroi gisa.



Amaia Doyague
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 24 urte.
■ **Herria.** Arrasate.
■ **Denboraldi kopurua.** Hiru daramatza arraunean



Itziar Saizar
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 28 urte.
■ **Herria.** Ibarra.
■ **Denboraldi kopurua.** 4 denboraldi daramatza.



Ainhoa Lopetegi
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 35 urte.
■ **Herria.** Belauntza.
■ **Denboraldi kopurua.** Sei urte daramatza arraunean.



Olatz Ortiz
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 16 urte.
■ **Herria.** Tolosa.
■ **Denboraldi kopurua.** Hiru urte eta erdi daramatza arraunean.



Izaskun Peñagarikano
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 16 urte.
■ **Herria.** Tolosa.
■ **Denboraldi kopurua.** Hiru urte eta erdi daramatza arraunean.



Maitane Garmendia
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 20 urte.
■ **Herria.** Ibarra.
■ **Denboraldi kopurua.** Bost denboraldi daramatza.



Itziar Olasagasti
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 19 urte.
■ **Herria.** Orio.
■ **Denboraldi kopurua.** Zazpi denboraldi daramatza.



Maialen Azaldegi
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 23 urte.
■ **Herria.** Tolosa.
■ **Denboraldi kopurua.** Lau urte daramatza arraunean.



Lide Mendikute
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 18 urte.
■ **Herria.** Hernialde.
■ **Denboraldi kopurua.** Bigarren urtea du arraunean.



Edurne Mendia
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 28 urte.
■ **Herria.** Tolosa.
■ **Denboraldi kopurua.** Lehen denboraldia du arraunean.



Naiara Gorostiaga
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 22 urte.
■ **Herria.** Tolosa.
■ **Denboraldi kopurua.** Laugarren denboraldia du arraunean.



Myriam Elorza
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 26 urte.
■ **Herria.** Tolosa.
■ **Denboraldi kopurua.** Hirugarren denboraldia du honako hau.



Naroa Urkola
ARRAUNLARIA
■ **Adina.** 16 urte.
■ **Herria.** Anoeta.
■ **Denboraldi kopurua.** Bigarren denboraldia du arraunean.

» FALTA DIREN ARRAUNLARIAK

Atzoko aurkezpen ekitaldian egon ez baziren ere beste lau arraunlarik ere osatzen dute Tolosaldeko nesken trainerua. Hauek ere eskualdekoak dira eta denboraldi bat baino gehiago daramatza arraunean. Atzo arratsaldeko norgehiagokan parte hartu zuten gainontzekoekin batera.
■ **Amaita Artola.**
■ **Nerea Elustondo.**
■ **Joana Alijostes.**
■ **Iratzi Ozaite.**

ditu, eta bertan, Gipuzkoa eta Bizkaiko nesken selekzioak lehiatuko dira. Saioak Ebroko uretan jokatu-ko dira eta han ere izango dira Tolosaldeko neska arraunlariak.

Anjel Larrañaga Larra eta Jose Luis Perez Koteli-ren zuzendari-tzapean entrenatzen dute Orion.

Hain zuzen ere Orioko klubak utzi die tolosarrei trainerua.

Udala eta TAKen arteko hitzarmena

Irailean sinatuko dute Tolosaldeko Udalak eta Tolosaldeko Arraun Klubak beraien arteko akordioa,

Udalbatzak onartu berri duena. Eskualdean arrauna sustatzea du helburu hitzarmen honek. Horretarako, bi aldeen arteko harremana areagotu nahi dute. Alde ekonomikoari dagokionez, 1,5 milioi euroko inbertsioa egingo du Udalak presa puzgarri bat egiteko Oria

ibaian. Hau 2010ean irekitzea espero dute eta honek ibaiaren sakonera metro bat areagotzea ekarriko du.

Jokin Bildarratz alkatearen esanetan, «lan zoragarria egiten ari da TAK. Izan ere, urte askoan errekarri bizkarra emanez egon gara, bai-

na horri buelta ematen lagundu du Klubak». Gaineratu zuen gazteen artean lan handia egiten ari dela, «balore desberdinak bultzatuz». Nesken traineruaren inguruan, pozgarritzat jo zuen, «Tolosa eta Tolosaldea izen bezala bultzatzeko balioko baitu, besteak beste».

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Bi pixukide behar dira Villabonan, pisua konpartitze-ko. 200 euro hilabeteko. Etxea egoera onean dago. Interesatuak deitu 667 01 48 20ra.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosaldeko Alde Zaharrean. Merkea, obra egin behar. 657 230011.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

MENDI-ALDE
Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaumartzeak... *Jatetxea*
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

BRONTXILLO Harategia • Arraindegia
943 69 68 23
Santio, 4
Villabona
Santioak ondo pasa!



25°
17°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. EURIA
BEROENA 27°
HOTZENA 18°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** Abuztuaren 26an koadri- len bazkaria egingo da jaietan. Txartelak salgai egongo dira Sendi Ekintzan hilaren 17an, 23an eta 29an, 19:30etik 21:00ak arte, 22 eurotan.
- **Tolosa.** Pintxo tailerra antolatuta dute Topagunean 17:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** Sanblasipiko Gazte Asanblada euskal dantza (fandangoa eta arin arina) ikastaroa antolatuta du udako asteazkenetarako, 11:30etik 13:00etara, Otsabi gazte lokalean, Udaberri dantzari taldearen laguntzarekin.
- **Tolosa.** Piraguisimo ikastaroak antolatuta ditu Kaxkardi Kultur Elkarteak Txaraman, egun bateko irteerak edo aste osoko ikastaroak. Izen-ematea, 636 638635 eta 677 488910 telefonoetan. Zortzi urtetik gorakoentzat. Iraitera bitarte.
- **Tolosa.** Tolargik eta Tolosagasa 2009 urteko Tolosako egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri dute abian *Tolosa eta bere jaiak* gaiaz. Argazki lehiaketan parte hartu nahi dutenek nahi adina argazki aurkeztu ahal izango dituzte Tolargiren egoitzan, (Rondilla kalea, 34 behea.

Musika

- **Tolosa.** Lopez-Mendizabal pasealekuan Jamix funk, jazz eta reggae taldearen kontzertua 22:30etik aurrera, Gau giroren barruan.

Irteerak

- **Tolosa.** Abuztuaren 29rako Laredora irteera antolatuta du Harizpek, Lore Festara. Bidaia-aren prezioa 30 eurokoa da bazkideentzat, eta gainontzekoentzat, 33. Izen-ematea, elkartearen.

Mendi irteerak

- **Tolosa.** Pirinioetara mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak, bihurtik igandera bitarte, Palas (2.974 m) eta Lurien (2.826 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartearen bertan egin daiteke.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



Merkurioak gora egin du

TOLOSALDEA-LEITZALDEA • Beroak, bero sargoriak presentzia egin zuen atzo gurean. Termometroek gogotik egin zuten gora eta 30 graduak pasa zituzten eguneko ordu beroenetan. Dударik gabe, uda guztian izan den egunik beroena izan zen atzokoa. Ez omen du gehiegi iraungo, adituek diotenez tenperaturak berriro ere jaitsi egingo baitira. Ziurrenik gehienek eskertuko dute... HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Aitor Aristi Imaz (Irura).

Gaur urtebete. Zorionak familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberrak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

